BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

2997

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 30ekoa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (463/2011 prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak epatzeko dena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (463/2011 prozedura laburtua) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2011ko irailaren 20ko Ebazpenaren kontra aurkeztu da; ebazpen horren bitartez, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente kategoriako karrerako funtzionarioentzat Esku-hartzeko Gaikuntza ikastaroan sartzeko hautaketa prozedurarako deia egiten da (urriaren 10eko EHAA, 193. zk.), eta, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, bederatzi eguneko epean prozeduran ager daitezen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2012ko maiatzaren 30a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.